

URRIA · AZAROA · ABENDUA

1. HIRUHILEKO

# PROGRAMA



lotune

2024/2025

# AURKEZPENA:

Lotune Mutrikuko herritarrak feminismoan formatzeko eta saretzeko espazioa da.

Desikasi, ikasi, eztabaidatu, kontzientziatu, elkar ezagutu, babestu, gozatu, zalantzan jarri eta eredu berriak sortzeko espazioa da. Mutriku anitz eta parekidea eraikitzen jarraitzeko topagune bat.

## AURTEN ESKAINTZA ZABALAGOA IZANGO DA:

### EMAKUMEENTZAKO\* JABEKUNTZA ESKOLA

Jarduera hauek soilik emakumeentzako\* dira: elkarrekin egon, errealitateak konpartitu, teoria feministan formatu, aliantzak sortu eta elkarrekin ahalduentzeko baliabideak eskainiko dira.

Emakumeak\* izartxoarekin: genero-sistemak ezarritako dikotomiez gain bizipen, errealitate, gorputz eta identitateak anitzak direla ikusarazteko (bollera, trans, ez-bitar...).

### FEMINISMOA GUZTION KONTU

Jarduera hauek herritar guztientzako dira. Ikuspegi feminista bermatuz, erakusketak, liburuen aurkezpenak, hitzaldiak, dokumentalak... eskainiko dira.

### GIZONAK FEMINISMORANTZ

Jarduera hauek gizonentzako izango dira, feminismoa eta gizarte anitz baten aldeko borroka ez baitira soilik emakumeen\* ardura. Zer diote herriko gizonak? Nola egin nahi dute parekidetasunaren alde?

# EMAKUME- ENTZAKO\* JABEKUNZA ESKOLA

Jarduera hauek soilik emakumeentzako\* dira: elkarrekin egon, errealitateak konpartitu, teoria feministan formatu, aliantzak sortu eta elkarrekin ahalduentzako baliabideak eskainiko dira.

## IKASTAROA TXALAPARTA HASTAPENA

Urriak 17 eta 24  
Azaroak 7 eta 14

18:30-19:30 · Luardo  
Dinamizatzailea: Nagore Etxabe  
Etxabe

Ttakunaren erritmoa ezagutu eta txalaparta jotzen ikasteko talde-ikastaroa.

Izen ematea urriaren 10a baino lehenago.

## IKASTAROA TXI-KUNG

Urriak 21 eta 28  
Azaroak 4, 11, 18 eta 25  
Abenduak 2 eta 9

10:15-12:15 · Luardo  
Dinamizatzaileak: Marta Kaperotxipi Urain

Yangsheng-a bizitza elikatzeko eta lantzeko erabiltzen diren praktika guztiak dira, zeintzuk gorputza eta arima orekatzen eta indartzen dituzten, prebentzioa dutelarik helburu.

Praktikahorietariko bat Txi Kung-a da. Udazkenean sartu berri gara, eta bagoaz neguko lozorrorantza, barrurantza, sustraietara, erraie-tara, neguko hotzetik babestera, gure barrenerako bidaiari ekitera, Yang-etik Yin-era!

Beraz, erdu Txi Kung ikastarora eta has dezagun udazkena gorputza eta arima garbituz, zainduz, mimatuz eta energiaren koloreez tintatuz! Ikastaro honetan Txikung-aren bidez eta beste erraminta batzuen bidez, geure burua gehiago ezagutzeko, honekin lotuak dauden hainbat kontzeptu lantzeko, eta berau orekatzeko eta tonifikatzeko aukera paregabea izango dugu.

Esperientzia intimoa bezain dibertigarria izango da. Nere erreka sorginorratzak Mutrikun, saregiñeen orratzek bezala, gure arteko sarea zabaltzen eta sendotzen lagunduko digu. Partaide bakoitzaren erritmoa kontuan hartuko da, beti ere errespetutik, aniztasunetik eta askatasunetik eraikiz!

Erropa eroso, ura, kuadernoa eta boligrafoa ekarri!

Ongietorri Luardoko Kofradiara!

Ongietorri armoniaren bidera!

Izen ematea urriaren 14a baino lehenago.

# FEMINISMOA GUZTION KONTU

Jarduera hauek herritar guz-tientzako dira. Ikuspegi femi-nista bermatuz, erakusketak, liburuen aurkezpenak, hitzal-diak, dokumentalak... eskainiko dira.

## LITERATURA

### “PRINTZAK BEGIETAN”

Azaroak 28

18:00-20:00 · Zabel kultur etxean  
Idazlea: Iratxe Ormatza Imatz

Ipuin-liburua bidaia bat da XX. mendean barre-na, emakume euskaldunen ikuspegitik.

Zelakoak ziren, zer pentsatzen zuten, zer nahi zuten, zer egiten zuten? Horiek izan ziren hasie-rako galderetako batzuk, senak esaten zidan-eta zer kontatu diguten eta zer jazo zen ez zirela bat etorriko.

Hala, askotako emakumeen bizipenak eta gogoetak irudikatu ditut, itzaleko printzak argitara ekarri guran.

## ERAKUSKETA

### “INDUSEN IBAIBIDEAK: HIMALAIATIK KASATXIRA, PAKISTAN; BEGIRADA SOZIAL BAT”

Azaroaren 15etik 28ra

Zabel kultur etxean

Aste barruan 18:00-20:00

Larunbatetan 12:00-14:00/18:00-20:00

Igandeetan 12:00-14:00

Erakusketaren aurkezpena: azaroak 2,  
19:00etan, Zabel kultur etxean

Sortzailea: Igone Mariazkurrena

Erakusketa honetan badaude ahalduz histeri-riak txertatuta (psikologa kliniko batena Afga-nistango mugatik oso gertu; emakume transe-xualen eta sexu-langileen elkarteak;...)

Baina, batez ere, uste dut balio duela ikusaraz-teko klima aldaketak zer nolako ondorio berezi edo partikularrak dituen emakume\* eta neska-toen kasuan (Pakistan bezalako herrialde batean), eta nolako indarkeriak areagotzen diren klima aldaketagatiko larrialdi egoeretan:

# ANTZERKIA

# “OLAGARROAK”

## (GEURETIK SORTUAK)

### Abenduak 1

18:00 · Zabil kultur etxean

Sortzaileak: Olatz Beobide, Maitane Perez eta Nerea Arriola.

Oholtza bat. Olagarro bat. Hiru emakume.

Hiru bihotz erruarekin jolasean, olagarroaren eta gizakien munduak nahastuz, erroak eta erruak korapilatuz, itsas azpian eta lur azpian biziraun nahian. Hiru aktore erruak astindu nahian, olagarroak haren zortzi erroak astintzen dituen moduan.

Obra posible asko obra bakar batean, poetika ezberdinetan mimitizatuko direnak, zuloetan sartuko direnak, barrenaren bidez arnasa ekarriko dutenak eta behar izanez gero, tinta beltza jaurtiko dutenak, bizirauteko.

Oholtza bat. Olagarro bat. Hiru emakume. Eta askoz gehiago.

Sarrerak [salgai mutriku.eus](http://salgai.mutriku.eus) webgunean edo turismo bulegoan: **3€**



# GIZONAK FEMI NISMO RANTZ

Jarduera hauek gizonentzako izango dira, feminismoa eta gizarte anitz baten aldeko borroka ez baitira soilik emakumeen\* ardura. Zer diote herriko gizonen? Nola egin nahi dute berdintasunaren alde?

## IKASTAROA GIZONAK PAREKIDETASUNERANTZ

Urriak 16, azaroak 13 eta  
abenduko 11

17:30-20:00 · Luardo

Dinamizatzailea: Egoitz Arbiol (Hiruki Larroxa)

### 1. SAIOA:

“Maskulinitateak eta gizontasuna: berdina da?”

**Helburua:** Lehenengo saioaren helburua, tailerrera datozen gizonekin oinarri komuna ezartzea izango da, gizontasunaren inguruko eduki teorikoak landuz, norberarengan duten eragina eta presentzia ezagutzeko helburuz.

### 2. SAIOA:

“Gizarte egitura eta egiturazko indarkeria: pribilejioa eta zapalkuntza”


**Helburua:** Bigarren saioaren helburua, bertaraten diren gizonen egituraz dituzten pribilejioen inguruko hausnarketa sustatzea izango da. Behin horiek hausnartuta, horiek uzteko estrategiak pentsatu eta ardura hartzea sustatuko da.

### 3. SAIOA:

“Gizonen arteko anaidia”

**Helburua:** Hirugarren saioan gizonen arteko anaidian eta honek gizonen artean sortzen dituen dinamikak izango ditu jo puntuan. Gizonen arteko anaidiaren deseraikuntza, despatriarkalizazio prozesuan gako da, besteak beste, egitura honen bitartez ahalbidetzen eta zilegizatzen baita indarkeria matxista.

Izen ematea urriaren 9a baino lehenago.



# V. BILERA IREKIA:

## Urriak 14

18:30 · Luardon

Bilera hauek hiruhileko bakoitzaren hasieran egin ohi ditugu. Bertan, Lotuneko jardueren balorazioa egiteaz gain, proposamenak, interesak eta premiak elkar banatzen ditugu. Hala, hurrengo hiruhilekoetarako gogoak identifikatu eta martxan jartzeko.

Zatoz zure ikuspegia konpartitzera!

# EGUTEGI OROKORRA:

## 10

### URRIA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
	01	02	03	04	05	06
07	08	09	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

## 11

### AZAROA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
				01	02	03
04	05	06	07	08	09	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

## 12

### ABENDUA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						01
02	03	04	05	06	07	08
09	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



## IKASTAROETAN IZENA EMATEKO:

feminismoaholkularitza@mutriku.eus  
679 162 507 (08:00-15:00)



## HAURTZAINDEGI ZERBITZUA:

Premia izanez gero, jakinarazi 15 egun lehenago helbide honetara:  
feminismoaholkularitza@mutriku.eus

*Eraiki dezagun Mutriku anitz  
eta parekide bat!*



PARA VER EL PROGRAMA  
EN CASTELLANO  
[LABUR.EUS/LOTUNE24-25](http://LABUR.EUS/LOTUNE24-25)



**Mutrikuko Udala**